Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea
Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

**EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDE COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO NTASUN BATZORDEA**

**4/2021 espedientea. Jatorria: SOS RACISMO.**
**Expediente 4/2021. Procedencia: SOS RACISMO**

## AURREKARIAK

I.- 2021eko apirilaren 27an, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordean [redacted] kontutik mezu bat jaso zen, [redacted] andreak sinatutakoa, poliziek eskubideak urratzearekin lotutako salaketak jasotzeko bideari buruzko informazioa eskatzeko.

**II. Kontsultaren azterketa eta Batzordearen erabakia.**

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkizugu oinarrizko eskubideak urratzearekin lotutako salaketak jasotzeko aurreikusita dauden baliabideetan interesa agertzeagatik.

Zuk ere esan duzun moduan, bidea ez da partikularrek Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordean salaketak aurkeztea, Batzordeak ez baitauka horietan esku-hartzeko eskumenik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortzen duen legearen arabera, Batzorde honek Euskadiko polizia kidegoak mendean dituzten administrazioek eskatuta baino ezin du jardun -hau da, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak edo kasuan kasuko Udal Agintaritzak eskatuta- edo Arartekoak eskatuta.

Ez dago aurreikusita eta, horregatik, ez da bidezkoa Batzordeak elkarteek edo GKE-ek eskatuta jardutea; nahiz eta ezin dugun aitortu gabe utzi gizartean izaten duten parte-hartzea garrantzi handikoa dela. Organizazio horiek horretarako Arartekora jo dezakete edo lehen adierazitako beste administrazioei.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak ofizioz ere jardungo du, bere ekimenez, poliziaren jarduketetan zehar

## ANTECEDENTES

I.- Con fecha 27 de abril de 2021, se recibe en la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, un correo desde la cuenta de [redacted], firmado por la Sra. [redacted], solicitando información sobre el posible cauce por el cual se reciben denuncias, asociadas a vulneración de derechos por parte de la policía.

**II. Estudio de la consulta y decisión de la Comisión.**

En primer lugar, se agradece su preocupación por los medios previstos para recibir denuncias asociadas a la violación de derechos fundamentales.

Como Ud. ya adelantaba no pueden ser las personas particulares las que presenten denuncias ante la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco ya que carece de competencia para intervenir sobre aquéllas.

Según la ley que la crea, la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco sólo puede actuar a instancia de las administraciones de las que dependen los cuerpos policiales vascos -es decir, Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, o la Autoridad Municipal correspondiente- o del Ararteko.

No está previsto y por ello no procede, que esta Comisión pueda actuar a instancias de asociaciones u ONG, sin desconocer por ello el inestimable valor de su participación en la sociedad. Estas organizaciones, pueden dirigirse a estos efectos al Ararteko o a las demás administraciones antes indicadas.

La Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco también actuará de oficio,

norbait hiltzen bada edo larriki lesionatuta suertatzen bada (Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 17.2 eta 19.1 artikuluak).

Hala ere, jakinarazi behar dizugu Ertzaintzaren barruan "Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritarren ekimenen bulegoa" (Ekinbide) dagoela eta horren lana dela herritarrek Ertzaintzaren funtzionamenduarekin lotuta dituzten kexak, oharrak eta iradokizunak jasotzea, aztertzea eta erantzutea; administrazioak beraiek alde batera utzi gabe.

Jakinaraz bekio erabaki hau eskatzaileari, eta erabaki hori hartzen da Vitoria-Gasteizen 2021eko maiatzaren 20an.

Eta hala jasota gera dadin, ZIURTAGIRI hau ematen du Batzordeko idazkariak, sinadura digitalaren datan.

por propia iniciativa, en los casos en los que en el curso de una actuación policial se produzcan resultados de fallecimiento o lesiones graves (artículos 17.2 y 19.1 de la Ley de Policía del País Vasco).

Le informamos, también, sin perjuicio de las administraciones propiamente dichas, que la Ertzaintza dispone de una "oficina de iniciativas ciudadanas para la mejora del sistema de seguridad pública", que es el servicio encargado de recibir, estudiar y responder a las quejas, comentarios y sugerencias de la ciudadanía en relación a su funcionamiento (Ekinbide).

Procédase a comunicar a la solicitante esta decisión, lo que se acuerda en Vitoria Gasteiz, a 20 de mayo de 2021.

Y, para que así conste se expide la presente CERTIFICACIÓN, por el Secretario de la Comisión, en la fecha indicada en la firma digital.